

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA ETA GARABIDE ELKARTEA ELKARLANERAKO HITZARMENA

Bergaran, 2013ko azaroaren 12an

BILDURIK

Batetik, Maren Belastegi Guridi andreak, UEMAren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

Eta, bestetik, Andoni Barreña jaunak, Garabide elkartearen izenean (IFK: G-20890315), haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten lanean ari den erakunde publiko bat da. Bere helburu orokorrak dira, bere udalerrietako herritarrek euren bizitza publiko zein pribatua euskaraz egin ahal izatea; euskararen lurgunea ahalik eta zabalena izatea; eta udalerrri euskaldunen garapen sozioekonomiko eta soziokultural jasangarria bultzatzea.

Garabide elkarteak, bere aldetik, kooperazio era berri bat eginez, esperientzien elkar banaketan oinarritutako lankidetzan aritzen den elkarteak da.

Bi erakundeon artean, Euskal Herriko lankidetzaren inguruan hausnartu ondoren, gure herriak beste herriei eskaintzeko daukanaren inguruko adostasunetara iristea lortu zen.

Besteak beste, Euskal Herriak esperientzia eta uza baliagarriak metatu ditu azkeneko 50 urteetan zehar jatorrizko hizkuntza biziberritzeko prozesuan, eta UEMAK tokiko administrazioaren inguruan duen esperientzia uka ezina da. Euskararen biziberritze-bidea guztiz egina ez badago ere, interesgarria izan daiteke egindako urratsak euren hizkuntza eta kultura putzu sakon eta ilunetik ateratzeko gogoia duten gainerako herriei erakusteko, baina inola ere ez eredu gisa, bidelagun bezala baizik. Eta noski, Euskal Herriak ere badu zer ikasi hizkuntza gutxituko herriengandik. Bidea zubiak eraikitzea da, elkarri laguntzeko eta bidelagun izateko.

Gainera, UEMA osatzen duten udalek bakoitzak bere kasa kudeatzen du garapenerako lankidetzaren funtsen bat. Gaur egun, ordea, ia bere osotasunean garapen bidean dauden herrialdeetako komunitateetako interbentzio-proiektuetara bideratzen da.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek Nazioarteko garapen-lankidetzan hizkuntza irizpideak dagokion lekua izan dezan,

HITZARTZEN DUTE

1. UEMAK nazioarteko garapen-lankidetzan udalek duten eskumenaren baitan, ondoko proposamena luzatuko die bere udalei:
 - a. Nazioarteko garapenerako lankidetzetan hizkuntzak biziberritzeko jarduera-esparru berria eranstea, lehendik daudenekin batera ibilbide propioa egin dezan. Jarduera-esparru berri honek hizkuntzak biziberritzeko proiektuak identifikatu, sustatu, garatu eta ebaluatuko dituen jarduera-esparru berezia izan beharko du.
 - b. Horretarako, UEMAK bere udalei lankidetzaren funtsaren %25 jatorrizko hizkuntzen biziberritze egitasmoetarako izatea.
 - c. Garapen-lankidetzan, hizkuntza-irizpidea gainerako jarduera-esparru guztietako egitasmoetan uztartuko den zehar-lerro berria izatea.
 - d. Garapen bidean dauden herrialdeetako komunitateetako interbentzio-proiektuez gain, nazioarteko garapen-lankidetzak hizkuntzak biziberritzeko jarduera-esparru berri honen arloan bertako gizartearen sentiberatzea eta elkartasuna lortzeko jarduerak ere bultzatzea.
2. Horren berri emateko, UEMAK dituen bide propio hauek erabiliko dira:
 - a. UEMAREN Batzar Nagusia
 - b. Euskara teknikariak eta ordezkari politikoen arteko bilerak
 - c. UEMAREN barne buletina
3. Udalei gaiaren inguruko argibide guztiak emateko, Garabidek horretarako prestatu duen txotena erabiliko da.
4. UEMAK Garabideren bidez, Euskal Herrira datozen nazioarteko lagunei berak administrazio esparruan duen esperientziaren berri emateko konpromisoa hartzen du, hala eskatzen bazaio.
5. Garabidek nazioartean UEMARENTZAKO baliagarria izan litekeen esperientzien berri mankomunitateari emateko konpromisoa hartzen du.

Eta ados dauden seinale, agiri hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.